Mundakako Errekatxu haitzuloko saguzarren presentzia
Presencia de murciélagos en la cueva de Errekatxu, Mundaka

Inazio Garin, UPV/EHU
2018ko Apirila

Aurrekariak

2017 urtearen hasieran Antonio Galerak, Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurumen Naturala Zaintzeko Saileko teknikariak, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Zoologia eta Animali Zelulen Biologia Saileko irakasle bat deitu zuen telefonoz Mundakako haitzulo batean egon zitezkeen saguzarrei buruzko informazioa eskatuz, informazio hori zergatik behar zuen argitu gabe. Unibertsitateko lantalde honek koba hori ez zuela ezagutzen adierazi zitzaion, ez genuela inoiz lagindu eta, beraz, ez genekiela zein saguzar espezie bizi zen bertan.

Gerora jakin dugunez, kobazulo horren hurbileko lur-eremutan eraikuntza-plan bat dago martxan 2018 urterako (24 etxebizitza). Haitzulo hori eta bertako saguzarrak ere eztabaidagai izan dira Bizkaiko Batzar Nagusietan. Podemos/Ahal Dugu talde politikoaren ekimenez Ingurumen Diputatuak azalpenak eman zituen 2017ko Otsailaren 10ean. Bertan esan zituenen artean UPV/EHUko adituak aipatu zituen, esanaz ez zegoela inongo ebidentziarik saguzarren presentziaz kobazulo horretan. Ondorioz, eraikitzeko proiektuak aurrera jarraituko zuela esan zuen, "ebidentziarik gabe ez baitago babes neurririk hartzeko justifikaziorik" argumentupean.

UPV/EHUn saguzarrei buruzko txostenak egiteko gaitasun tekniko-zientifikoa daukan ikertalde bakarreko partaide naizen aldetik esan dezaket, ziurtasun osoz, 2017 urtea baino lehen koba horretako saguzarrak ez ditugula UPV/EHUko adituok aztertu. Ondorioz, ikertalde horretako inork ez diola inoiz inori aipatu Errekatxu haitzuloan mehatxatutako saguzarrik ez dagoenik.

Koba batetan espezie mehatxaturik ote dagoen ez jakitea eta espezie mehatxaturik ez dagoela jakitea ez dira gauza bera. Bi horiek bereiztea espezie mehatxatuen kontserbazioaren ardura (politikoa eta soziala) duenari exijitu behar zaio. Bizkaiko Foru Aldundia konturatuta dago mehatxatutako fauna ornodunaren benetako banaketa ez ezagutzea dela animalia horien arazo nagusietako bat eta hala jasota dauka 2015 urtean onartutako Bizkaiko Lurralde Historiko osoan biodibertsitatea babestu, hobetu eta kudeatzeko estrategian edo 2018ko aurrekontuetan bertan. Eta halandaze, Diputatu Anderearen agerraldian esandakoaren arabera Iraunkortasuna eta Ingurumen Naturalaren Sailak ez du saguzarren babeserako inolako neurririk hartuko Errekatxu haitzuloko

saguzarrak benetan ba daudela jakin bitartean. Gauzak horrela, denok espero behar genuke jarraian Sail horrek saguzarren presentzia egiaztatzeko baliabideak inplementatzea, zalantza hori argitzearren hain zuzen ere. Baina Diputatuaren agerraldian ez da halakorik iradokitzen. Guztiz alderantziz, Iraunkortasuna eta Ingurumen Naturala Zaintzeko Sailaren arabera UPV/EHUko adituek jada adierazi omen dute bertan ez dagoela mehatxatutako saguzarrik.

Aurrekoa aintzat hartuta, eta gura barik nire lantaldea gai honetan inplikatu denez, Mundakako Errekatxu haitzuloko saguzarrak monitorizatu ditut urtebetez. Ardura sozialagatik egin dut, kobako saguzarrak zeintzu diren gizarteak, gizarte eragileek eta herri arduradunek jakin dezaten. Alegia, ezagumendua sortu eta zabaltzea, unibertsitateko kideen ardura hori baita. Ez dagokit niri, ez beste inori baino gehiago bederen, Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurumen Naturala Zaintzeko Sailak zer erabaki hartu behar dituen esatea, baina Sailak saguzarrak babesteko neurririk hartuko badu edo horiek ez hartzea erabakitzen badu, informazio osoa edukita egin dezala, ezjakintasuna aitzaki modura argudiatu barik.

Azterketa honek gainera Bizkaiko Lurralde Historiko osoan biodibertsitatea babestu, hobetu eta kudeatzeko estrategian aipatutako A.16 ekintzarekin bat egiten du zuzen zuzenean, eta beraz Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurumen Naturala Zaintzeko Sailarentzat onuragarria izatea da nire itxaropena.

Azkenik, azterlan honen emaitzak Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurumen Naturala Zaintzeko Sailari bidaltzeaz batera bestelako erakundeetara igorri dut, interesatuta leudekelakoan.

Monitorizazioa

Kobaren irteeratako batetan saguzarrek emititzen dituzten ultrasoinuen grabagailu bat (SM2, Wildlife Acoustics, AEB) instalatu dut urtebetez, 2017ko Martxotik 2018ko Martxora. Aparatua bateriarik gabe egon deneko aste gutxi batzutan izan ezik etengabe grabatu ditu saguzarren ultrasoinuak. Aparatuak animaliak kobatik irteteko ordu-tarteetan egin ditu grabaketak. Kobatik irteten ziren saguzar espezieak identifikatzeko bakoitzaren ultrasoinuen ezaugarriak erabili ditut. Ultrasoinuen grabaketak saguzarren aktibitatea detektatzen du baino ez da baliagarri saguzarren kopuruak estimatzeko. Hala ere, grabaketa kantitatea saguzar espezie bakoitzaren kopuruak urtean zehar gora edo behera egin duen

Rhinolophus euryale



Rhinolophus ferrumequinum



Rhinolophus hipposideros



Miniopterus schreibersii- Myotis emarginatus



inferitzeko baliatu daiteke.

Emaitzak

Errekatxu haitzuloan honoko espezieek hartzen dute babesa: *Rhinolophus euryale* ferra saguzar mediterranearra (Euskal Autonomia Erkidegoko Espezie Mehatxatuen Katalogoan Galzorian izendatutako espeziea, 167/1996 Dekretua), *Rhinolophus ferrumequinum* ferra saguzar handia (Kaltebera), *Rhinolophus hipposideros* ferra saguzar txikia (Interes Berezikoa) eta *Miniopterus schreibersii* koba saguzarra (Kaltebera). Azken horrek eta *Myotis emarginatus* Geoffroy saguzarrak (Kaltebera) ekokokapenerako darabilten ultrasoinuen antzekotasunek zaildu egiten dute sarritan bien artean bereiztea. Horregatik hainbat behaketa *Miniopterus/ Myotis* gisa sailkatu ditut.

Ferra saguzarrek (*Rhinolophus* generokoek) gainera urte osoan erabiltzen dute Errekatxu haitzuloa, nahiz eta udako sasoian saguzarren jarduna udaberrian eta udazkenan behatutako baino baxuagoa den orohar. Koba saguzarrak (*Miniopterus schreibersii*) aldiz uda aurretik eta udaostean grabatu dira gehien.

Gainera, *Myotis* generoko indibiduoei dagozkien ultrasoinuak grabatu nituen Urria eta Abendua bitartean, nahiz kopuru baxuan.

Ondorioak

Erakutsitako datuok frogatu egiten dute mehatxatutako espezieak daudela Errekatxuko Koban, eta urte osoan erabiltzen dutela. Detektatutako lau espezietik hiru gainera Euskal Autonomi Erkidegoko Espezie Mehatxatuen Katalogoan *Galzorian* eta *Kaltebera* zerrendatutakoen artean daude, beraz legez babestuta daude eta haien presentziak hainbat debeku ezartzen ditu Natura Babesteko arautegiak (16/94 Legea eta 1/2014 Dekretua) adierazten duen gisa.

Espero dut aurkeztutako datuok arduradun publikoek erabakiak hartzeko lagungarri izatea.